

Adinak

Amagoia MUJKA
TELLERIA

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 13 urtetik 8 urte eta 6 hilabetera jaitsi dio zigorra Burlatan 13 urteko neska bat bortxatu zuen gizonari. Arrazoia? Kon-
denatuak ez zuela uste neskatoak 16 urte baino gutxiago zituenik. Altua zela, mozkorra zegoela, preserbatiboak zeramatzala poltsikoan, 17 urteko lagun batekin zegoela... Total, 13 urte zituen arren, 20 urte zituela ematen omen zuen –lekuko batek esana–, eta zigorra arindu diote. Auzitegiak ebatzi du gertakariak ez direla 16 urtetik beherakoen aurkako sexu-eraso delitu

gisa hartuko, sexu-eraso delitu gisa baizik. Hortik zigorra jaistea. Akusatuak 33 urte ditu. Nazka eta bihotzerearekin sortzen digute horrelakoek. Eta egunero iristen zaigu dosia, zein jendartetan bizi garen ez dezagun ahaztu.

Kasuak zer pentsa ematen du. Gizon-
ezko askoren begietara, zein ote da emakumeen adin-tarte perfektua? Erakargarriena? Erotikoena? “Gaztetasunaren” apologia gehiegizkoa sumatzen da azkenaldian. Neskato gazteak zaharxeago agertu nahian, zehatz eta zorrotz makillatuak. Emakume zaharxeagoak obsesiboki gazteago agertu

nahian, bisturiaren esklabo. Haurrak nerabeen gisara jantziak, ezpainak gorri. Denak ispiluaren aurreko epaiketa krudelean. Bueltatzen eman beharko genioke joera horri, pentsatu zer egingen dugun eta zergatik. Edertasunaren kanon estuak laxatu, edertasuna bera nahieran definitu eta bizi.

Baina, zalantzarik gabe, badugu horren aurreko lanik. Neskato zein emakumeak –gazteak, zaharrak, makillatuak, aurpegia garbi daramatenak, zoriontsuak zein triste daudenak– bortxatzen dituzten gizonezkoak ureztatzen dituen sistema abolitu behar da. •

Psikopaten aroa

Koldo SAGASTI

Gure patua psikopata gutxi batzuen esku dago. Halaxe ondorioztatu zuen Jon Ronson idazle britaniarrak “Psikopata al zara?” izeneko liburuan. Ikerlan horretan, “The Guardian” egunkariako kolaboratzaileak kontrastean jarri zituen gaitz psikopatiakoaren diagnostikorako ezaugarriak goimailako ardura postuetan dauden politikari eta enpresarienekin. Ariketaren emaitza erabatekoa izan zen: mundua psikopatek gobernatzen dute. Psikopatak ez du damurik, ezta hurkoarekiko enpatiarik ere; manipulatzailerak, bere helburuak lortuko baditu; neurri gabeko egoa dauka; eta gezurra modu konpultsiboan darabil. Horiexek dira gaur egun munduan saritzen diren ezaugarriak. Zenbat

eta gertuago izan horietatik, orduan eta gorago egingo duzu botere-katean.

Izan ere, psikopatiaren ikuspegitik baino ezin da ulertu, inongo damu-izpirik gabe, milioika pertsonaren garbiketaren etnikoa antolatzea moketadun bulego baten erosotasunean, milaka umeren genozidioa agintzea hotzikara nimitzen ere sentitu gabe. Baina saraskia diseinatu eta zuzentzen duena bezain psikopata da, halaber, triskantza gelditzeko baliabideak izanik, ezer ez egiteko hautua egiten duena.

Jakin berri dut aste honetan Palestina-ko ordezkari batzuek bisitatu duela Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordea. Bisitarien ezkerreko eskuak bizkarrean elkartasun-txaloak emango

zizkieten politikari bertsuek Israelgo kolonizazioaren azpiegiturak eraikitzen ari den euskal konpainia batentzako dirulaguntzak sinatzen dituzte eskuinekoaz, biboteko bilo bat ere mugitu gabe. Ez al da eskrupulu falta hori izaera psikopatiaren zantzu argia? Ez al da hurkoarekiko enpatia falta hori aginte postuetara iristea ahalbidetu diena?

Aro berri baten atarian gaude. Inoiz ez da metatu hainbesteko boterea hain esku gutxitan, eta inoiz ez dute izan esku gutxi horiek hainbesteko suntsipen-gaitasuna, eta hain eskrupulu gutxi. Datorkigunari aurre egiteko, diskurtsoa berrarmatu behar dugu, gure patua psikopata gutxi batzuen esku egongo ez bada. •